

Emakumeentzako

EIBAR

*Tabetxe*  
ESKOLA



AHALDUNTZEKO  
ESPAZIOAK

**BERDINTASUN ZERBITZUA- ANDRETXEA**

Zezenbide kalea, 9 Baxua

☎ 943700828

@ andretxea@eibar.eus

f Andretxea Eibar



## EMAKUMEAH AHALDUNTZEKO ESPAZIOAK

### HARREMAN AFEKTIBOAK TRATU ONAK SUSTATZEKO



Hau **talde eta prozesu espazioa** da. **Tratu onaren** eredutik harreman afektiboak landu nahi duten emakumeei zuzendua.

Emakumeen arteko harremanak konplexuak dira. Askotan, konturatu gabe, nagusitasun-menpekotasun eskema bera eta botere erlazioak errepikatzen ditugu. Indarkeria eta boterea ahal denean erabiltzen delako.

Horregatik, tratu txarren aurrean diskurtsoa lantzea soilik ez da nahikoa. Bizipenak, sentrazioak, zirrarak eta beste diskurtso mota bat landu behar dira. Tratu txarraren aurrean, tratu ona landu beharko genuke.

Espazio honetan tratu ona hiru dimentsiotan landuko dugu: barnekoa, harremanetakoa eta soziala.

Espazio honen **helburu orokorra da emakumeen ahalduztzean laguntzea**, tratu ona maila pertsonalean, erlazioetan eta baita arlo sozialean ere txertatuz, bake erlazioak sortzeko norik bere buruarekin eta ingurunearekin.

**Taldea 2018ko urrian hasiko da, eta hamabost egunez behin elkartuko da, hilabeteko lehen eta hirugarren ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara, Andretxean.**

**Dinamizatzailea Inma Merino de Castro izango da, Lura terapia psikologiko eta sexologikoko gunekoa.**

**Izen-emateko epea 2018ko irailaren 3an hasiko da. Andretxean. Saioak gaztelaniaz izango dira.**

### **Informazio gehiagorako:**

Zezenbide kalea, 9 Baxua

 943700828  andretxea@eibar.eus  Andretxea Eibar

## **GURE BURUA MAITATZEN IKASTEN**

**Gure burua maitatzen ikasten espazioaren** hartzaileak dira indarkeria matxistatik irten nahi duten emakumeak: bortizkeria dagoen erlazioetan murgilduta egonda, oraindik erabakiak hartzeko prest ez dauden emakumeak; orain dela gutxi banatuta, larrialdiaren eta krisiaren berehalakotasunean daudenak; eta banandu ondoren ,bizitza-proiektu baliotsu eta duina tratu onetik eraikitzeko, kaltetutako identitatea konpondu beharra duten emakumeak.



Espazio honen **helburu orokorra** da bortizkeria pairatu izan duten emakumeen ahalduntze prozesua sustatzea, bere bizitzaren gaineko erabakiak hartzeko, talde interakzioaren bidez, eta tratu onetik bizitza-proiektu bat sortzeko.

**Taldea 2018ko irailean hasiko da.**

**Saioak gaztelaniaz izango dira.**

**Dinamizatzailea Itziar Gandía Quintanilla izango da, Lura terapia psikologiko eta sexologikoko gunekoa.**

**Informazio gehiagorako:**

Servicio de Igualdad (Servicios Sociales) Portalea, calle Bista Eder, 10 (4º piso)

☎ 943708440 @ berdintasuna@eibar.eus